

Kultura-aniztasunari buruzko  
**UNESCOren**  
aldarrikapen unibertsala



Parisen,  
UNESCOren  
Batzar Orokorren  
31. bilkuran onartua,  
2001eko azaroaren 2an



## Batzar Nagusiak

**Berretsi egiten du** Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean, eta mundu zabalean onartutako beste tresna batzuetan (esaterako 1966ko Nazioarteko Itun biak, bata eskubide zibil eta politikoei buruzkoa, bestea eskubide ekonomiko, sozial eta kulturei buruzkoa) aldarrikatutako giza eskubideekiko eta oinarrizko askatasunekiko atxikimendua.

**Gogoratzen du** UNESCOren Konstituzioaren hitzaurrean “(...) kulturaren hedapen ahalik eta zabalena, eta gizaki oro justizia, askatasuna eta bakearen alde heztea nahitaezkoak zaizkiola giza duintasunari, eta munduko nazio guztiek erantzukizunez eta elkarri lagunduz bete behar dutela hori, nahitaezko betebeharra dutela.

**Gogoratzen du baita** Konstituzio horren lehen Artikuluak UNESCOri, “hitzaren eta irudien bitartez ideien zirkulazio librea ahalbidetzeko egoki deritzon nazioarteko hitzarmenak” bultzatzeko helburua ematen diola, beste batzuen artean.

**Aintzat hartzen ditu** UNESCOk promulgatu dituen nazioarteko tresnetan kultura-aniztasunari eta kultura-eskubideak praktikara eramateari buruz dauden xedapenak.<sup>1</sup>

**Berretsi egiten du** kultura gizarte edo gizatalde jakin bat berezitzen duten ezaugarri espiritual eta material, intelektual eta afektiboen multzoa dela, eta barne hartzen dituela ez soilik artea eta literatura, baita bizimoduak, elkarrekin bizitzeko ohiturak, balore-sistemak, tradizioak eta sinesmenak.<sup>2</sup>

**Egiaztatzen du** kultura identitatea, gizarte-kohesioa eta ezagutzaren gainean eraikitako ekonomia baten garapenari buruzko eztabaida garaikideen muinean dagoela.

**Baieztatzen du** kultura-aniztasunaren errespetua, tolerantzia, elkarrizketa eta lankidetzak, nazioartean bakea eta segurtasuna bermatzeko tresna egokienetakoak direla, beti ere konfiantzazko eta elkarren arteko ulermen giro batean.

**Jomugan dauka** kultura-aniztasunaren errekonozimenduan, gizaki guztion batasunaren kontzientzian, eta kultura-elkartrukeen garapenean oinarritutako elkartasuna areagotzea.

**Kontsideratzen du** informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien eboluzio bizkorrak ahalbidetu duen mundializazio prozesuak kultura eta zibilizazioen artean elkarriketa berriztatu baterako baldintzak sortu dituela, nahiz eta, bestalde, erronkak planteatzen dizkion kultura-aniztasunari.

**Kontzientzia dauka** UNESCOri dagokion agindu espezifikoa, betiere Nazio Batuetako sistemaren baitan, kulturen aniztasun emankorra babestu eta sustatzearen aldekoa.

**Aldari egiten ditu ondoko printzipioak eta Aldarrikapen hau onesten du**

---

[1] Horien artean, bereziki aipatzekoak dira: Florentziako Hitzarmena (1950) eta hari atxikitako Nairobiko Protokoloa (1976), Egile-Eskubideei buruzko Hitzarmen Unibertsala (1952), Nazioarteko Kultura-Lankidetzari buruzko Printzipioen Aldarrikapena (1966), Kultura-Ondasunen Legez Kontrako Inportazioa, Esportazioa eta Jabego-Transferentzia Debekatzeko eta Saihesteko hartu beharreko Neurrien gaineko Hitzarmena (1970), Munduko Ondare Kultural eta Naturala babesteko Hitzarmena (1972), Arrazari eta Arraza-Aurriritziei buruzko UNESCOren Aldarrikapena (1978), Artisten izaerari buruzko Gomendioa (1980) eta Kultura tradizionala eta herrikoia babesteari buruzko Gomendioa (1989).

[2] Definizio hau bat dator Kultura-Politikei buruzko Nazioarteko Konferentziako (MONDIACULT, Mexiko Hiria, 1982), Kultura eta Garapenerako mundu batzordeko (Nuestra Diversidad Creativa, 1995) eta Garapenerako Kultura-Politikei buruzko Gobernuen arteko Konferentziako (Stockholm, 1998) ondorioekin.



# Kultura-aniztasunari buruzko UNESCOren aldarrikapen unibertsala

## Identitatea, aniztasuna eta pluralismoa

### 1. artikulua

#### *Kultura-aniztasuna, gizaki guztion ondare*

Kulturak molde desberdinak hartzen ditu espazioan eta denboran zehar. Aniztasun hori gizateria osatzen duten gizatalde eta gizarteak bereizten dituzten identitateen originaltasun eta pluralismoan ikusten da. Kultura-aniztasuna sormenaren, berrikuntzen eta elkartrukeen iturria da eta, ildo horretatik, nahitaezkoa gizakiontzat, aniztasun biologikoa izaki bizidunentzat bezain beste. Beraz, gizaki guztion ondarea da, eta errekonozimendu eta babesa jaso behar du, oraingo eta geroko belaunaldien onurarako.

### 2. artikulua

#### *Kultura-aniztasunetik kultura-pluralismora*

Gure gizarte gero eta dibertsifikatuagoetan, ezinbesteko bihurtu da elkarrekintza harmoniatsua eta elkarrekin bizitzeko borondatea bermatzea kultura-identitate aldi berean plural, anitz eta dinamikoak dituzten pertsona eta gizataldeei. Hiritar guztiak barnean hartuko dituzten eta partaidetza suspertzen dituzten politikek gizarte kohesioa, gizarte zibilaren bizkortasuna eta bakea bermatzen dituzte. Horrela definituta, kultura-pluralismoa kultura-aniztasunaren egitateari ematen zaion erantzun politikoa da. Demokraziako testuinguruari nahitaez loturik, kultura-pluralismoak kultura-trukeak eta bizitza publikoa elikatzen dituzten gaitasun sortzaileen garapena suspertzen ditu.

### 3. artikulua

#### *Kultura-aniztasuna, garapenaren eragile*

Kultura-aniztasunak zabaldu egiten ditu edonori eskaintzen zaizkion aukerak; garapenaren iturrietako bat da, beti ere garapena hazkuntza ekonomiko soilaz haratago, edonor asetzeko adinako bizitza intelektual, afektibo, moral eta espiritualaren lortzeko bide gisa ulertuta.

## Kultura-aniztasuna eta giza eskubideak

### 4. artikulua

#### *Giza eskubideak, Kultura-aniztasunaren berme*

Kultura-aniztasuna defendatzea betebeharrak dira, gizakien duintasunaren errespetutik banaezina. Kultura-aniztasunak giza eskubideak eta oinarriko askatasunak errespetatzeko konpromisoa dakar berarekin, bereziki gutxiengoetako kideenak eta herri autoktonoenak. Ez da zilegi inork kultura-aniztasunaren izena erabiltzea nazioarteko zuzenbideak bermatzen dituen giza eskubideak urratzeko, ezta haien garrantziaren murrizteko ere.

### 5. artikulua

#### *Kultura-eskubideak,*

#### *kultura-aniztasunaren testuinguru egokia*

Kultura-eskubideak giza eskubideen zati dira, eta, beraz, unibertsal, bereiztezina eta elkarren arteko menpekoak. Sormen-aniztasuna garatzeak kultura-eskubideak osoki betetzea eskatzen du, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 27. artikulua, eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmeneko 13. eta 15. artikuluek dioten bezala. Beraz, pertsonak orok nahi duen hizkuntzan egiteko, eta bere lana sortu eta zabaltzeko aukera izan behar du, eta bereziki bere ama-hizkuntzan. Pertsonak orok norberak hautatu kultura-adierazpenetan parte hartzeko aukera izan behar du, berak hautatu kultura-jarduerak praktikatzeko aukera, betiere giza eskubideen eta oinarriko askatasunen errespetuak ezartzen dituen mugen barruan.

### 6. artikulua

#### *Guztientzako eskuragarri den kultura-aniztasun baten bidean*

Hitzaren eta irudien bitartez ideien zirkulazio librea bermatzen den bezala, pertsona guztiak beren burua ezagutzera eman eta nahi dutena adierazteko aukera izan dezatela bermatu behar da. Izan ere, honako elementuak kultura-aniztasunaren garrantzia dira: adierazpen-askatasunak, komunikabideen pluralismoak, eleaniztasunak, adierazpen artistikoa, ezagutza zientifiko eta teknologikoa –baita formato elektronikoan ere– bereizketarik gabe eskuragarri izateak, eta kultura guztiak adierazpen eta hedapen bitartekoetan egoteko aukera.

## Kultura-aniztasuna eta sormena

### 7. artikulua

#### *Kultura-ondarea, sormenaren iturri*

Sormenak, edozein delarik ere, kultura-tradizioetan dauka sorburu, baina beste batzuekiko kontaktuaren bidez garatzen da. Horregatik babestu, baloratu eta hurrengo belaunaldiei transmititu behar zaie ondarea, edozein motatakoa izanik ere, giza esperientziaren eta nahien testigantza den aldetik, sormena bere dibertsitatean elikatzeke, eta benetan kulturen arteko elkarrizketa pizteko.

### 8. artikulua

*Izaerazko desberdintasuna kultura-arloko ondare eta zerbitzuak eta beste edozein merkantzia motaren artean*  
Sormenari eta berrikuntzari aukera handiak irekitzen dizkieten egungo aldaketa ekonomiko eta teknologikoen aurrean, arreta egin behar zaie sormenaren eskaintza anitzari, egile eta artisten eskubideak behar bezala baloratzeari, eta kultura-arloko ondare eta zerbitzuen izaera espezifikoa; izan ere, identitate, esangura eta baloreen igorle izanik, bereizi egin behar dira beste edozelako merkantzia edo kontsumo-ondasunetatik.

### 9. artikulua

#### *Kultura-politikak, sormenaren sustatzaile*

Kultura-politikek, ideia eta sormen-lanen zirkulazio librea bermatzen duten aldetik, kultura-arloko ondasun eta zerbitzu dibertsifikatuak sortu eta zabaltzeko baldintza egokiak ezarri behar dituzte, tokiko eta nazioarteko esparruetan garatzeko bitartekoak dituzten kultura-industrien bitartez. Mundu zabaleko Estatuek, betiere nazioarteko betebeharrak errespetatuaren mugen barruan, beren kultura-politika definitu eta aplikatu behar dute, horretarako egokien iruditzen zaizkien bitartekoak erabiliz, direla laguntza jakin eta zehatzak, direla testuinguru arau-emaile egokiak.

## Kultura-aniztasuna eta nazioarteko elkartasuna

### 10. artikulua

#### *Sortzeko eta zabaltzeko gaitasunen indartzea mundu mailan*

Egun, mundu mailan, kultura-ondarearen truke eta fluxuetan gertatzen diren desorekek nahitaezko bihurtzen dute nazioarteko lankidetzeta eta elkartasuna indartzea, herrialde guztiei kultura-industria bideragarri eta kompetitiboak sor ditzaten aukera emateko, bereziki garapen bidean eta trantsizioan dauden herrialdeei.

### 11. artikulua

#### *Harremanen ezarpena sektore publikoa, sektore pribatua eta gizarte zibilaren artean*

Merkatuaren indarra, beren bakarrean, ez da gauza kultura-aniztasuna babestu eta sustatzeko. Beraz, komenigarria da politika publikoen oinarrizko funtzioa indartzea, sektore pribatuarekin eta gizarte zibilarekin batean.

### 12. artikulua

#### *UNESCOren funtzioa*

UNESCOk, bere agindua eta funtzioak bitarteko, honako ardurak ditu bere gain:

- a) Gobernuen arteko erakundeek euren jardunean gauzatzen dituzten garapen-estrategietan Aldarrikapen honetan jasotako printzipioak kontuan har ditzatela bultzatzea;
- b) Estatuak, nazioarteko erakunde gobernuak eta gobernu kanpokoak, gizarte zibilaren eta sektore pribatuaren arteko erreferentzia eta adostasunerako tresna izatea, elkarren artean kultura-aniztasunaren alde kontzeptu, helburu eta politikak eraiki ditzaten;
- c) Aurrera eramatea berezko duen zeregin arauemaile, eta gaitasunen garapenerako eremua, Aldarrikapen honekin zerikusia duten eta bere eskumen-esparruko diren alderdietan;
- d) Ekintza Planaren aplikazioa bideratzea eta erraztea (orientabide nagusiak Aldarrikapen honi laguntzen diote, eranskin gisa).

# Kultura-aniztasunari buruzko UNESCOren aldarrikapen unibertsala aplikatzeko ekintza-planaren orientabide nagusiak

*Estatu Kideak kultura-aniztasunari buruzko UNESCOren Aldarrikapena ahalik eta gehien hedatzeko, eta berau praktikan bete dadin neurri egokiak ezartzeko konpromisoa hartzen dute, elkarren arteko lanari esker batez ere honako helburuak lortzeko asmoarekin:*

- 1.** **Sakonago lantzea** kultura-aniztasunaren inguruko arazoen gaineko nazioarteko eztabaida, bereziki garapenarekin lotzen direnen, eta nazio zein nazioarteko esparruetan politikak formulatzerakoan eragiten dutenen gainean. Eta sakondu, bereziki, kultura-aniztasunari buruzko nazioarteko tresna juridikoak gauzatzeko egokitasunari buruzko hausnarketan.
- 2.** **Garatzea** printzipio, arau, eta praktiken definizioa, nazio zein nazioarteko esparruetan, hala nola sentsibilizazioarako bitartekoena, eta kultura-aniztasuna babesteko eta sustatzeko lankidetzaz bide egokienena.
- 3.** **Suspertzea**, kultura-pluralismoaren esparruan, ezagutza eta praktika gomendagarrien elkartrukea, gizarte dibertsifikatueta kultura-jatorri desberdineko pertsona eta gizataldeak barne hartzeko, eta beren partaidetza sustatzeko asmoz.
- 4.** **Aurrerapausoak ematea** giza eskubideek barne hartzen dituzten kultura-eskubideen edukia ulertu eta argitzeko bidean.
- 5.** **Babestea** gizateriaren ondare linguistikoa, eta suspertzea, ahalik eta hizkuntza-kopuru handiengan, adierazpen, sorkuntza eta zabalkuntza laguntzea.
- 6.** **Sustatzea** aniztasun linguistikoa hezkuntzaren maila guztietan, ama-hizkuntza errespetatuz, eta baita eleaniztasunaren ikaskuntza, adinik txikienetatik hasita.
- 7.** **Sustatzea**, hezkuntzaren bitartez, kultura-aniztasunak balore positiboak dakartzan kontzientzia eta, hori lortu asmoz, eskolako programazioen formulazioa eta irakasleen prestakuntza hobetzea.
- 8.** **Txertatzea**, behar besteko neurrian, metodo pedagogiko tradizionalak hezkuntza-prozesuan, komunikaziorako eta jakituriaren transmisiorako metodo kulturalki egokiak babestu eta ahalik eta etekin gehien ateratzeko.
- 9.** **Sustatzea** “alfabetatze elektronikoa” eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien ezagutza areagotzea; izan ere, teknologia berri hauek irakasgaitzat eta hezkuntza zerbitzuen eraginkortasuna indartzeko tresna pedagogikotzat hartu behar dira aldi berean.
- 10.** **Sustatzea** aniztasun linguistikoa esparru digitalean, eta mundu zabaleko sareen bitartez esparru publikoari dagokion informazioa eskuratzeko aukera unibertsal eta dohainekoa egon dadin bultzatzea.
- 11.** **Lehiatzea** elektronikaren munduan dauden desoreken aurka, garapen bidean dauden herrialdeek teknologia berriak eskuragarri izan ditzaten bultzatuz, informazioaren teknologiak ezagut ditzaten lagunduz, eta kultura-produktu endogenoen zirkulazio elektronikoa eta herrialde horiek mundu mailako baliabide digitalen (hezkuntza, kultura eta zientziaren alorretan) baliabideen eskuragarritasuna erraztuz.





## 12.

**Suspertzea** komunikabideetan eta nazioarteko informazio-sareetan eduki dibertsifikatuen agertu eta zabalduko direla eta, asmo horrekin, irrati eta telebista bidezko komunikazioaren zerbitzu publikoen kalitatezko ikus-entzunezko produktuak ekoizteko zeregina bultzatzea, produktuon zabalkuntza bideratuko duten mekanismo kooperatiboen sorrerari berebiziko arreta eginez.

## 13.

**Suspertzea** ondare kultural eta naturala babestu eta baloratzeko politikak eta estrategiak, bereziki ondare ahozko eta inmateriala, eta aurre egitea kultura-alorreko ondasun eta zerbitzuen trafiko bidegabeko edota legez kanpokoari.

## 14.

**Errespetatu eta babestea** tradizioko ezagutza sistemak, batez ere gizatalde autoktonoenak; errekonozitzea tradizioko ezagutzen ekarpena ingurumena babestu eta baliabide naturalak kudeatzerakoan, eta zientzia modernoaren eta tokiko ezagutzen arteko sinergia bultzatzea.

## 15.

**Erraztea** sortzaile, artista, ikerlari, zientzialari eta intelektualen mugikortasuna, eta ikerketarako nazioarteko programa eta elkarten garapena, aldi berean garapen bidean eta trantsizioan dauden herrialdeetako gaitasun sortzailea babesten eta areagotzen saiatuz.

## 16.

**Bermatzea** egile-eskubideak eta horiekin lotutakoak babestu egingo direla, eta sormen-lanaren ordainketa bidezkoa izango dela, sormen garaikidearen garapena suspertze aldera; aldi berean kulturaren eskuragarritasun unibertsala defendatzea, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 27. artikuluan jasotzen denaren arabera.

## 17.

**Laguntza ematea** garapen bidean eta trantsizioan dauden herrialdeetan kultura-industria sortu edota finkatzeko eta, asmo horrekin, laguntzea gutxieneko azpiegitura eta kompetentziak sortzen, tokiko merkatu bideragarriak sortzen eta herrialde horietako ondare kulturalak mundu zabaleko merkatura eta nazioarteko banaketa-sistemetan sarbidea izan dezaten.

## 18.

**Sortzea** kultura-politika egokiak, Aldarrikapen honetan jasotzen diren printzipioak bultzatuko dituztenak, besteak beste arau-marko egokiak sortu edota betetzeko mekanismoen bidez, eta betiere Estatu bakoitzaren nazioarteko betebeharrak errespetatuz.

## 19.

**Hurbilaraztea** gizarte zibila osatzen duten sektoreak kultura-aniztasuna babestu eta sustatzeko politika publikoen definitzeko prozesuetara.

## 20.

**Errekonozitzea eta sustatzea** kultura-aniztasunaren balorazioan sektore pribatuak egin dezakeen ekarpena eta, asmo horrekin, sektore publikoa eta pribatua elkarren artean harremanetan jartzeko espazioen sorrera bultzatzea.

*Estatu Kideek Zuzendari Nagusiari gomendatzen diote UNESCOren programak betearazterakoan kontuan har ditzala Ekintza Plan honetan adierazitako helburuak, eta jakinaraz diezaiela Nazio Batuen sistemako erakundeei eta interesa duten beste erakunde gobernuzko eta gobernuz kanpokoei, kultura-aniztasunaren alde hartzen diren neurrien sinergia sendotzeko asmoz.*





UNESCO Etxea  
Urkixo zumarkalea 60, nag., esk.  
48011 BILBO  
www.unescoeh.org  
944 276 432

LAGUNTAILEAK

